

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



GERARDO LOPEZ DE GEREÑU. ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO AGIRITEGIA. ATHA-DAF-GUE-16805

TREBIÑU, LOPEZ DE GEREÑUREN BEGIAN ETA ARABARREN BIHOTZEAN

XX. mendearen erdialdeko irudian Imiruri ageri da, Trebiñu udalerriko kontzejua, Arabako bihotzean dagoe-na. Argazkiaren egilea Gerardo Lopez de Gereñu argazkilari, etnografo eta historialari gasteiztarra da (1904-1992). Euskaltzaindiko eta Euskale-riaren Adiskideen Elkarteko kide izan zen. 1990ean Manuel Lekuona saria jaso zuen. Argazkigintzan egin zuen obra oso zabala da. Alderdi artistikoa-ri dagokionez, nabarmentzekoak dira natura hilak, eta, alde dokumentalari dagokionez, Araba osoko argazkiak: bertako jendea, arkitektura eta arte-lanak. Ondoko argazkia datorren ekai-naren 1ean Gasteizen zabalduko du-ten “Trebiñu: Arabako eta arabarren bihotzean” erakusketan egongo da. Erakusketaren aurkezpen testuak dioenez, «Arabak eta konderriak lo-tura historiko, kultural, sozial eta eko-nomiko asko dituzte; horregatik, gure probintziako bihotz geografikoan egoteaz gainera, Araba gure komuni-tateko parte bezala sentitzen dugu».